


Ez ditugu ipurdiak ondo ezagutzen.
Ba al zenekien piper formako ipurdiak daudela?
Eta ipurdi urdinak, gorriak, gardenak, orbaindunak...
Baita koloreanitzak ere!

Liburu honetan haien ohiturak eta gustuak
deskubrituko dituzu, baita sekula entzun gabe zenituen
ipurdien mundu zirraragarriko hainbat sekretu ere.

Zatoz ezagutzera!



ISBN: 978-84-19607-23-2 www.nubeocho.com



IPURDIAK. EZINBESTEKO GIDA



EVA MANZANO EMILIO URBERUAGA



IPURDIAK

EZINBESTEKO GIDA

EVA MANZANO EMILIO URBERUAGA



*Emiliori, bere begikotasun, eleganzia eta umoreagatik.
Ohorea delako zurekin lan egitea.*

*Ipurdi guztientzat, irekiak zein lotsatiak, triangular
zein borobilak, jupiterriar zein lurtar. Haien alaitasunagatik,
baita ilargiaren alderdi iluna izateagatik ere.*

Eva Manzano

Lero-ri, etortzeagatik.

Emilio Urberuaga



Ipurdiak. Ezinbesteko gida
Somos8 bilduma

© testuarena: Eva Manzano, 2023

© ilustrazioena: Emilio Urberuaga, 2023

© argitalpena: NubeOcho, 2023

© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2023

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *El libro de los culos*

Lehen argitalpena: otsaila, 2023

ISBN: 978-84-19607-23-2

Gordailu legala: M-29762-2022


Bosnia-Herzegovinan inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Kopia eta debekatuta.

IPURDIAK

EZINBESTEKO GIDA

EVA MANZANO EMILIO URBERUAGA






Ez ditugu

IPURDIAK

ondo ezagutzen. Beti estalita daramatzagu, noski, baina denek antzekoak diruditen arren, oso ezberdinak dira.

Bakoitzak bere izaera du, oso lotsatiak izan daitezke, baita oso lagunkoiak ere, baina gauza bat argia da: ipurdi guztiek elkar agurtzen dute eta elkarri egun onak ematea dute gustuko.



Esertzea dute maite, baina baita ibili, mendiak igo zein jaistea, oporretara joatea edo eta

OPARIAK

jasotzea ere.


HISTORIA APUR BAT

Ipurdiek, egun ezagutzen ditugun modura, euren urtebetetzea dute.

KANBRIAR PERIODOAN

dute jatorria...



DUELA 540 MILIOI URTE GUTXI GORA-BEHERA!



Dena animaliek jateko

AHO BAT

eta jandakoaz libratzeko beste bat garatu zutenean hasi zen. Aldaketa horri esker, jan, hazi eta gure tamaina handitu ahal izan genuen. Honek gure garuna garatzea ahalbidetu zuen.



Beraz, "ipurdia"ren sorrerak

ARGIAGO

bilakatu gintuen.

NOLAKOA DA GIZAKION IPURDI BAT?

Gizakiok tamaina handiko ipurdia dugu. Bizkarra amaitzean bi masail bigun eta borobil ageri dira, elkarrengandik bereizita. Emakumeen ipurdia handiagoa da

ESTROGENO

deritzon hormona bat dela eta.



ZERGATIK DUGU GIZAKIOK HAIN IPURDI HANDIA?

Tximinoengandiko eboluzioan, ipurdiko muskuluek lau hankatan ibiltzeari utzi eta

ZUTIK JARTZEN

lagundu ziguten. Hala, distantzia luzeak korrika egin genitzakeen, bizirautea bermatuz.

IPURDIEN OHITURAK

Gizakiek mania andana dute euren ipurdien inguruan eta izen asko jarri ohi dizkiote: popa, atzealde, behealde, ipurmasail...



Zenbait kulturatan heziera txarrekoa da aipatze hutsa: ipur... SHHH!
Eta debekatuta dago kalean erakustea. Hala ere, ipurdiek etengabe egiten dute agertzeko saiakera.



Haurrek oso gustuko dute

IPURDI BISTAN

ibiltzea.



Gazteek etengabe begiratzen dute

ISPILUAN

etxetik atera aurretik.



NIRE AUZOKO IPURDIAK

Joakina okinarenak

OGI BIRIBIL

bat dirudi.



Eskolan, Anttonek beti azkura ematen diola dio, eta bi eskuekin egiten du hazka. Gero gure atzetik etortzen da eta ihes eginarazten digu.



Maritxu fruta saltzailearenak, aldiz,

PIPER

baten itxura du.



Ipurdiek badute zerbait
xelebretik barre
eginarazten diguna.
Horrexegatik bakarrik,

MONUMENTU


bat egin beharko litzaieke
hiriko edo herriko plazan.



KULERO ETA GALTZONTZILOAK

Gizakiek **NEURRI** ezberdinetako ipurdiak dituzte.

Gizonek **GALTZONTZILOAK** jantzi ohi dituzte sarritan; emakumeek, aldiz, kuleroak.



Hauek bihotzdunak izan daitezke, baita lore, orezta, marra edo superheroidunak ere. **NEURRI** handiak, oso handiak, ertainak, txikiak eta oso txikiak daude. Badaude

SUPERIPURDIENTZAT

aparteko neurriak ere.

